

## TTAKUN (H)ERRENKA

### Ni neu aldatu

J

oxerra Garziak *Ego-  
nean doazen geziak*  
(Alberdania, 2000)  
ezohiko liburua kale-  
ratu zuen. Genero eta

estilo nahasketatik abiatuta, funtsean aforismoen itxura hartzen duen bilduma da liburua. Interesgarria, oso ona. Egileak, arloetako batean, Goebbelsen honako esaldi eza-  
gun hau hartzen du bere gogo-  
eta egiteko: “Gezur bat, edo-  
zein delarik ere, egia bihurtzen da behar  
adina aldiz errepikatuz gero”. Eta esaldiari  
buruzko hausnarketa egiten du, esanez,  
Goebbelsek arrazoi zuela egiaztatzeko ez  
dagoela oso urrutira joan beharrik. Baina  
okerrena, ez dela hori. Okerrena da egia ere  
gezur bihurtzen dela, behar baino gehiagotan  
errepikatuz gero. Nik gezurra beti dela eta  
izango dela gezur, eta egia beti dela eta izan-  
go dela egia sinestu izan dut, baina okerra  
litzateke nork bereak dituela zaintzen uka-  
tzea. Guztiok gara gure gezur eta egien mai-  
tale. Norberak bere esperientzia bakoitza sor-  
tzen du, gezurra eta egia pentsatzeko eta  
sentitzeko duen moduaren arabera. Pentsa-  
tzen, sentitzen eta hitzetan jartzen ditugun  
gezurak eta egiak osatzen dituzte, azken  
finean, munduari eta bizitzari buruz ditugun  
usteak. Nik beti sinestu nuen egia gezurra  
baino askoz ere boteretsuago, jakintsuago,  
justuago zela, baina “teorema” horrek nire-  
tzat baino ez du balio. Bizitza  
osoa egin dut egia baten bila, eta  
saiatu naiz harremanen bidez,  
politikaren bidez, erlijioaren  
bidez, maitasunaren bidez,  
diruaren bidez, kulturaren  
bidez, baina orain iritsi naiz  
ulertzera alferrik ibili naizela  
bila. Eta ez da izan aurkitu ez  
dudalako, baizik eta aurkitu  
dudan bakoitzean, atea ireki eta  
inor ez, eta ezer ez zegoelako  
han. Lehenago jakin izan banu  
orain dakidan gutxi hori, baina,  
tamalez, ez dago ikasteko beste

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Apaolaza

modurik. Ezjakintasunak  
sustrai sakonak ditu giza-  
kiongan, horregatik gerta-  
tzen zaigu hain zaila benetan  
jakitea. Eta ez dut esango  
hori gauza txarra edo ona,  
gauza zuzena edo okerra  
denik, giza bizitzaz dakigun  
egia zaharretako bat da,  
besterik gabe. Baina hau une  
berri bat da niretzat, eta

berriro hasi naiteke une honetan bertan, ira-  
ganetik libre. Gaur sinestu, pentsatu eta senti-  
tu nahi dudan horrek eraikiko du nire biha-  
rra, nire datorren hilabetea, datorren urtea,  
eta abar, eta abar. Eta hau une berri bat dela,  
berriro hasteko aukera berri bat dela ulertzea  
zoragarri iruditzen zait. Baina hori horrela  
egin nahi baldin badut, arau hertsia bihurtu  
ditudan nire gezur eta egia txikietan aldaketa  
handi batzuk egiteko prest egon behar dut.  
Nik ezin baitut inor aldatzera behartu, egin  
dezakedan bakarra ni neu aldatzea baita.  
Gauzak okerreko alderdiz ikustera jartzen  
ninduten egiak aldatu. Nire buruaz liluratuta  
bizitzera eramaten ninduten gezurrak aldatu.  
Ni neu aldatzen naizen heinean, aldatuko bai-  
tira nire mundu guztia eta nire bizitza guztia.  
Hertsitasunak sustrai sakonak ditu gizakion-  
gan, horregatik egiten zaigu hain zaila ideia  
berriak eta bizitzeko modu berriak esperi-  
mentatzea. Askok dira hasteko egin ditzakedan  
gauzen artean egin ditzakedanak, baina hona-  
ko honekin hasiko naiz: prest nago gatazka  
politikoaren ondorioz piztu  
zaizkidan ezkortasuna, nekea,  
gabeziak, mugak edota esperien-  
tzia desatseginak elikatzen dituz-  
ten jarraibide negatiboak uzteko.  
Hor ikusten dut nik askatasune-  
rako bidea. Urteak dira kontra-  
koa egin dudala guztiz, eta ez  
naiz aldatu. Ez da bidea. Zorio-  
na, berezkitasuna, ahalmen sor-  
tzailea berreskuratu  
nahi ditut. Hemen  
eta orain. Askatasu-  
na. Nire herriak  
bezala. ■

«  
Prest nago gatazka politikoaren ondorioz  
piztu zaizkidan ezkortasuna, nekea,  
gabeziak, mugak edota esperientzia  
desatseginak elikatzen dituzten jarraibide  
negatiboak uzteko. Hor ikusten dut  
nik askatasunerako bidea  
»

